



# Altzaiko herensugea

Altzai, Zuberoako herri menditsua da. Mendien artean, han, Azalegi mazelan, bada harpe zilo handi bat. Mendi horretako artzainek noiz nahi ardiak, ahuntzak, bai eta ere pottokak eta behiak galtzen zituzten.

5 Egun batez, artzainek ikusi zuten, errekan edaten ari zela...

## HERENSUGEA!

**Bi artzain solasean :** – Ikusi duka ?

– Zer animalia itsusia! Hiru buru, buztan luzea... **Ikaragarria** duk!

10 – Bai! eta atzo, behi bat osorik jan omen dik! Zer egin behar diagu!

**Bi artzainak (batean) :** – Herensuge hori hil behar diagu!

Xibali hurbiltzen da. Oso gizon abila da Xibali.

**Xibali :** – Nik ez dut herensugearen beldurrik! Herensuge hori  
15 hilen dut!

**Artzaina :** – Eta... nola egingen duzu ?

**Xibali :** – Ardi larrurik ba ahal duzue nonbait ?

**Artzaina :** – Bai! Horra ardi larru bat.

*Ikusker*  
**Ikaragarria:**  
izigarri  
handia,  
erraldoia.